



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
ZK/NRO 37000126	

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko URTARRILA - 151. zenbakia

URTARRILAREN 25^{EAN} OSPATUKO DUGU BERTSO EGUNA

"Azalera" izango du aurtengo izenburua. Donostian izango da eta, ohi bezala, eguerdiko 12:00etan Alde Zaharreko kaleetan zehar ibiliko gara, arratsaldeko 18:00etan ekitaldi nagusia egingo dugu eta ondoren afaria eta festa izango dira. Aurtengoan Manteo Kiroldegian egingo dugu afaria. Sarrerak salgai daude jada interneten.

Urte hasierako ekitaldi nagusia izaten da Bertsozale Elkartearentzat Bertso Eguna. Aurtengoa urtarrilaren 25ean ospatuko dugu, larunbatez, Donostian. "Azalera" izango du leloa eta, ohi bezala, egun osoko egitaraua prestatu dugu. Goizeko 12:00etan Alde Zaharrean "Kalez kale" ibiliko gara. Ondoren, arratsaldeko 18:00etan, ekitaldi nagusia egingo dugu Kursaalean. Saio ostean afaria eta festa izango dira. Aurtengo berrikuntza nagusietako bat afaltzeko lekua izango da, Manteo Kiroldegian egingo baitugu, Iparra-Hegoa elkarteak prestatuta.

Sarrerak salgai

Ohi bezala, sarrerak internetez eskuratu ahal izango dira www.bertsosarrerak.eu atarian. Urtarrilaren 14ra bitartean bazkideek soilik izango dute sarrerak erosteko aukera: arratsaldeko saiorako sarrera 13 eurotan eta saiorako eta afarirakoa 33 eurotan. Epe horretan, bazkide bakoitzak bazkide ez den beste pertsona batentzat eta 16 urtetik beherako batentzat beste sarrera bat hartzeko aukera izango du. Behin epe hori igarota, bazkide ez direnek ere sarrerak erosteko aukera izango dute: ekitaldikoa 18 eurotan eta ekitaldi eta afarikoa 40

eurotan. 16 urtera artekoek 8 eurotan erosi ahal izango dute ekitaldirako sarrera eta 28 eurotan ekitaldi eta afarikoa. Etxetik janaria eraman nahi dutenek ere Manteon bertan afaltzeko aukera izango dute, 40 jarleku egongo baitira horretarako. Bazkideek eta 16 urtetik beherakoek sarrera 5 eurotan eskuratu ahal izango dute eta bazkide ez direnek 7 eurotan.

Bestalde, saldu gabe geratzen diren sarrerak urtarrilaren 25ean bertan jarriko dira salgai Kursaaletan leihatiletan. Leihatilak arratsaldeko 16:30etan zabalduko dira.



Bertso Eguna 2013.//Alberto Elosemi



AMETS ARZALLUS
2013/12/15 Barakaldo

Bukaerako agurra.

Zerutik begira daude Joxe eta Manuel Mari ziega zulutik entzuten beste euskaldun ugari musu bat Iparraldeko bertso eskolako haurrari lagundu nauten guziak Olatz eta arreba bi. Baina ni ez bainaiz hemen neuk sortu hutsean ari aitarena den txapela hau eskeintzen diot amari haurra nintzela euskeraz erakutsi zidanari.

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / posta-e: komunikazio@bertsozalea.com

Txapelketa Nagusiaren amaieran, mila esker

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013 amaituta, balorazio garaian sartu gara Bertsozale Elkartean. Ongi egindakoak nola aprobetxatu eta gaizki egindakoak nola zuzendu aztertuko dugu datorren asteotan.

Hori egitearekin batera, Txapelketa Nagusia aurrera ateratzen lagundu diguzuen guztiei esker ona luzatu nahi dizuegu, bereziki Bertsozale Elkarteko bazkideei, gure proiektu guztien ezinbesteko hauspoa zaretelako.

Bazkideez gain, gure eskerronik beroena bertsolari, gai-jartzaile, epaile, laguntzaile, bertso eskoletako kide, bertsozale, borondatezko langile, babesle, hedabide, udal eta bidelagun izan ditugun guzti-guztietan.



Txapelketa Nagusia.//Alberto Elozegi

Otsailean abiatuko da Arabako Bertso-kuadrilla artekoa

Auzolanean, lehiarik ezean eta izaera kolektibo eta herrikoian oinarrituta, otsailaren 1etik apirilaren 5era bitarte luzatuko da aurtengo edizioa. Bat-batekoan 15 eta idatzizkoan 21 talde ariko dira aurtengoan, 300 lagun inguru alegia. Hirugarrenez, Arabako bertsolaritza astintzea du helburu Kuadrilla Artekoak.

2010eko Arabako Bertso-Kuadrilla Artekoa mugarri bat izan zen Arabako bertsolaritzarentzat. Orduetik hona, bi urtean behin taldekako ekimenak antolatu dira bertan. Aurten hirugarrenez ospatuko da Arabako Bertso-Kuadrilla Artekoa eta orain arteko bidean sakontzea izango du xede, Arabako bertsolaritza mugimendua saretu eta indartzeko.

Aurtengoan lehia izaera kenduta dator Kuadrilla Artekoa. Beraz, parte-hartzea sustatzeko asmoz, sailkapenik ez da izango, eta apirilaren 5eko azkeneko saioa ez da finala izango, topaketa bat baizik. Kuadrilla Artekoan arituko diren talde guztiek hartuko dute parte bertan. Hala, aurtengoan Kuadrilla guztien izaera eta egoerara egokituko da ekimena.

Bat-batean ariko diren taldeak autogestionatuak izango dira, eta talde bakoitzak erabakiko du zenbat saio antolatu nahi dituen eta saioak ze formatu izango duen. Beraien ardurak izango da taldekideak eta baliabide teknikoak lortzea eta antolatzen dituzten saioen berri herrian edo eskualdean ematea.

35 talde ariko dira

Denera 35 talde inguru ariko dira aurtengoan. Bat-batean 15 taldek hartuko dute parte eta idatzizkoan 21ek. Kuadrilla Artekoaren izaera herrikoia bultzatzeko asmoz, bertsotan egitea, sortzea izango da helburua, eta ez bertsolariak plazaratzea. Herritik abiatutako bertsozaleen sustatuko da eta herriko bertsolariak baloratu, bertsolaritza mugimenduaren izaera kolektibotik abiatuta. Alegia, talde bakoitzean bertsolariez gain bertsozale, gai-jartzaile eta bertsolaritzan ezinbesteko diren hainbat kidek hartuko dute parte:

grabatzaileak, sukaldariak, trikitilariak... Denera 10-13 kideko taldeak izango dira bat-batean ariko direnak, 150 lagun denera. Bertsolarien eta bertso-eskolen arteko harremana sendotzea da asmoa, eta baita belaunaldi ezberdinak harremanetan jartzea ere. Idatzizkoan, berriz, 21 taldek eman dute izena. Hainbat izaeratako taldeak dira: bertso-eskolak, gazte asanbladak, euskaltegiak...

Otsailaren 1etik apirilaren 5era

Aurtengo Kuadrilla Artekoak 20 saio izango ditu. Urtarrilaren 18an egingo dugu aurkezpen festa Agurainen. Otsailaren 1ean egingo da lehenengo saioa eta apirilaren 5eko topaketarekin borobilduko da. Herri askotatik pasako da herriak eta eskualdeak aktibatzen helburuarekin eta, zaletasuna bultzatuz, bertso-eskola eta talde berriak sortzeko asmoz.



Arabako Bertso-kuadrilla Artekoa.//ABE

OTSAILAREN 7AN HASIKO DA "BARDOAK 2014"

Aurten bigarrenez egingo da taldekako ekimena Nafarroan, 2012ko esperientziaren ondoren. Talde bakoitzak kantatzeko eta saioak antolatzeko ardura hartuko du, belaunaldi ezberdinen eta bertsolaritzaren inguruko eragile ezberdinen arteko loturak estutze aldera.

2011ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren ondoren ildo berri bat hartu zuen Nafarroako Bertsozale Elkartek. Hala, banakako txapelketa bi urtean behin antolatzen hasi ziren, eta tarteko urteetan taldekako ekimenak bultzatu zituzten. Horren ondorioz etorri zen "Bardoak 2012" txapelketa. Iaz berriro ere banakako txapelketa egin ondoren, taldeka ariko dira aurten ere bertsolariak.

Orain dela bi urteko "Bardoak" ekimenean plazan esperientzia zuten bertsolariak eta jendaurrerako jauzia eman berri zutenak elkartu ziren talde bakoitzean, elkarri laguntzeko eta elkarren arteko lotura estutze aldera. Horrez gain, bertsolaritzaren inguruan aritzen diren eragile ezberdinak ere bildu ziren: gai-jartzaileak, epaileak, bertsolariak, antolatzaileak... Eragile hauek saretu eta etorkizunean Nafarroako bertsolaritzari arnas berri bat ematea zen asmoa. Aurten ere filosofia bera izango du "Bardoak" ekimenak. Iazko banakako txapelketak inoizko parte-hartze zabalena izan zuen bertsolari,

gai-jartzaile eta epaileen aldetik, orain dela bi urteko taldekako ekimenari esker neurri handi batean. Iazkoan "sare sozial" gisa islatu zen Nafarroako bertsolaritza, talde lanetik lortutako trinkotzearen eraginez.

Otsailaren 7tik apirilaren 12ra

Orain dela bi urteko ekimenean giro goxoan aritu ziren bertsolariak kantuan, eta hori errepikatzea da aurtengo asmoa. Hala, elkarte giroko saioak izan ziren ordukoak, otordu baten bueltakoak. Otsailaren 7an jokatu da lehenengo saioa eta apirilaren 12an egingo da finala. Otsaileko Bertsozalean ekimenaren inguruko xehetasun gehiagoren berri emango dugu, eta baita www.bertsozale.com eta www.bertsoa.com atarietan ere.





Puntua jarrita

LIERNI ELORTZA

Jokin, zuzenean esan izan didak bai, baina horrela idatziz beste seriotasun bat hartzen dik hire galderak...: Gipuzkoatik Lapurdira bizitzera joanda, zer dion huntaz eta hartaz? Botaizkigun hemen hire auzolangintza sentipen erromantiko-idiliko perla horietako batzuk...

Onetik badiat bai zorionez, eta asko. Bestelakorik ere geratzen duk... baina ez hainbeste, ze demontre!

Hasteko, bertso mundura erakarri izanagatik eskertu nahi ditut: lehenbizi Xabier Amuriza, Eskoriatzako ikastordu gozo haiengatik, Mikel Mendizabal gero lehen bertso bilerara gonbidatu izanagatik. Handik aurrera hamaika lagun, bilkura, kontu eta komeri... Eta Gipuzkoatik abiatuta Lapurdiko Bertsularien Lagunetako bat izateko aukera izan dut. Biak ere, energi bide paregabeak, eman eta jaso!

Perlak diok? Tartean baduk harririk ere, baina harri-bitxi bihurtzen ari dituk denboraren poderioz: Lankuren hasierako pena, gonbidapena bihurtu da. Urte hurrenaren ospakizuneko parte izatea, ikaragarri estimatu nuen! Edota orduko "handien" faltaz 1995ean antolatutako Gipuzkoako txapelketa hark bildutako jende finak ez zuela amore eman ikusiz gozatu egiten dut.

Lapurdin ere, eskerrak lehenbizi euskalgintzaz orokorrean Gipuzkoako eskemak honat egokitu ezean, gaixotuko nintzela hotz hotzean aholkatu zidanari, etsi gabe aitzina nola egin erakutsiz bide lagun izateagatik. Gertakari indartsu asko barne barnetik bizitzeko xantza izan dut, lehen Xapelgoa edota Azkainen ikastolaren lehen maila sortzea...

Eta Larralde nola ez aipa? (Bide batez Andoni Iturrioz hitzez nekez adieraz daitekeen esker ona). Sukalde gozo hartan egositako gaiak, goiko gelako epelean onduak, hitz baten mila esanahik sortutako eztabaidak eta filosofiak... Maurice, Kexux, Jon, Joanarekin... pasatako ordu luzeak errepikatzenko prest.

Egindakoaz gustura! Egitekoaz adi! Guzti hauek markatzen dute idilikotik errealtate gordinaren arteko bidea. Pozik eta amorrazioz, baikortasunez eta inpotentziatz bizi dut hemen ere euskal kulturaren mundua.


Baina arantzatxoa badut bai. Bertsularien Lagunak elkarteon non beharra sortuko eta epaimahaian tokia nasai! Nire izate eta saio ondoko gozabidearen ukazio. Albokoen aholku goxagarriak ere ez aski. Hala ere, Xilaba BECeKo Belharraren segida apala izateko prest da eta aitzakiak aitzaki asko gara bustitzeko prest. Elkarte buruak, Itzaina andereak ere, horrela senti ote du? Zer dion Joana?

Koplak

BATZAR NAGUSIAK EGINGO DIRA DATOZEN ASTEETAN

Urte hasierarekin batera, 2013ko memoria eta 2014ko aurreikuspenak egiteko garaia da. Hala, urtero bezala, elkarteetako batzar nagusiak egingo ditugu datozen asteetan. Nafarroako Bertsozale Elkartearen batzar nagusia urtarrilaren 18an izango da, goizeko 10:30ean, Iruñean, Nafarroako Bertsozale Elkartearen egoitzan. Egun berean izango da Arabako Bertsozale Elkartearena ere, eguerdiko 12:00etan, Aguraingo Zabalarte etxean. Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkartearen batzar nagusia martxoaren 1ean izango da, goizeko 10:30ean, Amotze-Senpereko Larraldean. Bizkaiko Bertsozale Elkartearen batzar nagusia martxoaren 15ean izango da eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearena martxoaren 22an. Azkenik, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen batzar nagusia martxoaren 29an egingo dugu.

Poto-Finixa



Behien aulkiak alpatzetik behian aulkiak jartzera
Bertsozale Elkarte

Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozale.com helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz. Bi erataria jaso nahi izanez gero, posta arruntez eta elektronikoz, adierazi mesedez eskaria egiterakoan.



TXIMELA KAPITAINAREN IZARRAK



Joseba Tapia ren emanaldia eta diska, www.lanku.com en